



BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Aliantzak enpresa ezberdinetan ematen diren elkarlanak dira, elkarlan hauetan bi enpresak ateratzen dira irabazten, batek bere produktua edo zerbitzua atera eta promozionatu egiten du eta bestean berdin. Gure kasuan, aliantzak egongo direla adostu dugu. Zehazki, SUMAGA enpresarekin aliatuko gara. Enpresa honek ekitaldiak antolatzen ditu eta lagungarriak izango zaizkigu gure enpresaren izena zabaltzeko. Izan ere, larunbatetako ekitaldi ezberdinak antolatzeko eskatuko diegu. Modu horretan, guk ere SUMAGA enpresakoei bisibildadea emango genieke.

Era berean, kamisetak salduko ditugu eta SUMAGA enpresari eskatuko diogu gure kamisetak diseinatzea eta egitea. Haiek guri zerbitzu bat eskaintzen digutenez eta horrek prezio bat duenez, horiei ordaindu beharko genieke oraindik adostu ez dugun zifra bat. Baina, deskontu bat egingo ligukete guk haien enpresa patrozinatuko dugulako.

Hornitzaile bereziei dagokienez, kirola egiteko materialetan dabilzaten hornitzaileak edukiko genituzke; izan ere, produktu hauek ez ditugu guk fabrikatzen eta hauen beharra dugunez beste enpresa bati erosiko dizkiegu. Horretarako, ondoren zehaztutako materialak eskatuko dizkiegu:

Bizikleta estatikoa, baloiak, hanketako pesak, korri egiteko zintzak, mankuernak, esterillak, eskumuturretako pesak, KTak, Banda elastikoa, dominadak egiteko barra eta gorputzaren enborra indartzeko barra paraleloa.

Material horiek Decathlon-ek eskaintzen dituzenez, gure hornitzaileetako bat Decathlon izango da.

